

«EAEko Kontsumitzaileen Hizkuntz Eskubideen Dekretua letra hila da isun atalik gabe»

Bilbotarra, kazetaria ofizioz, sei urte daramatza EKA, Euskal Herriko Kontsumitzaileen Antolakundearen (berez EAE dute jardun eremua), komunikazio arduradun. Merkataritzan eta zerbitzu enpresa handietan kontsumitzaileoi emandako arretan euskarak duen lekuaz jardun dugu harekin. EKAk jasotzen duen kexa oldearen barruan hizkuntzarekikoak hutsaren hurrengoa dira, baina badute kezkarik gaiaz. Baita EAEk arlo horretan duen legedi antzuz ere.

| UNAI BREA |

Argazkiak: Iñigo Azkona

Kontsumitzaileen kexak jasotzea da zuen lanetako bat. Asko iristen zaizkizue, baina arreta euskaraz ez jasotzeagatik oso gutxi...

Hutsaren hurrengoa. Gure ustez, euskaldun batentzat saltoki batean arreta euskaraz ez jasotzea, kontsumitzailea izateagatik dituen eskubideen aurkako eraso baido, hizkuntz eskubideen aurkako eraso da. Beraz, kexa horiek Behatokiari edo Kontseiluari heltzen zaizkie. Nik ez dut daturik, baina badakit urtero salaketa asko jasotzen dutela.

[Elkarrizketa hau egin ostean, hizkuntz eskubideak bermatzea xede duen Eusko Jaurlaritzaren Elebide zerbitzuak 2013an jasotako erreklamazioen berri eman zuen. 304 kexa jaso zituzten; ia laurden bat interes orokorreko zerbitzuetan, merkataritza-guneetan eta aseguru-etxeetan euskara erabili ezinagatik].

Oso kontziente gara kontsumitzaile modura dauzkagun eskubideez, baina askotan badirudi hizkuntz eskubideak ez daudela horien barruan.

John Fitzgerald Kennedy izan zen kontsumitzaileen eskubideez mintzatu zen lehena. Oso esaldi fama-



“1985ean NBEk kontsumitzaileen zerrenda ofiziala ezarri zuen, baina zerrenda horretan ez dira hizkuntz eskubideak aipatzen”.

tua bota zuen 1962an, AEBetako Kongresuaren aurrean: “Kontsumitzaile kontzeptuak guztiok hartzen gaitu, kontsumitzaileok merkatuko talde ekonomikorik garrantzitsuena gara, erabaki ekonomiko publiko zein pribatu guztiek eragina dute guregan eta guk ere eragina dugu ekonomian. Hala izanda ere, kontsumitzaileen ikuspuntuak, eskae-

rak... ez dira kontuan hartzen”. Eta oinarritzko lauzpabost eskubide aipatu zituen. Geroago, 1985ean, NBERen Batzar Orokorrek kontsumitzaileen zerrenda ofiziala ezarri zuen. Baina zerrenda horretan ez dira hizkuntza eskubideak aipatzen.

Handik eratorri diren legedietan ere ez, hortaz?

EAEen Euskal Kontsumitzaileen Estatutua daukagu, 1981ean onartua, eta 1984ko espainiar legea. Baina merkataritzan euskararen erabilpena bultzatzeko lehenengo saiakera serioa Ibarretxeren Jaurlaritzak egin zuen 2008an, Kontsumitzaileen eta Erabiltzaileen Hizkuntz Eskubideei buruzko Dekretua promulgatu zuten. Dekretuak behar batzuk ezartzen zituen zerbitzu enprezentzat eta saltokientzat, eta isun atala ere bazeukan.

Sekula indarrean jartzera iritsi ez zena, ondo jakina denez.

2010ean jarri zen indarrean dekretua, baina isun atalak urtebeteko luzamendua zeukan, enpresek egokitzeko denbora eduki zezaten. Bitarte horretan Patxi Lopez heldu zen Ajuria Enera, eta haren gobernuak isun atala dekretutik kentzea erabaki zuen. 2012ko otsailean kendu zuten atal hori, eta guk euskararen normalizatorako prozesuan atzerapauso handitzat jo genuen neurria. Zigor atalik gabe, ezartzen dituzten beharrak betetzea borondatearen menpe utzita, legeak ez dira lege, gomendio hutsak baino.

Dekretua indarrean dago oraindik.

Bai, baina letra hila da. Guk esan genuen, isun atala kendu zutenean, aurrerantzean oso gutxi hitz egingo zela dekretuaz. Eta hala izan da.

Isun eta guzti ere, dekretuaren jatorrizko bertsioa ahul samarra zela esan zenuten, ezta?

Izan ere, euskararen normalizazioan abiadura biziagoa nahi zuten euskal gizarteko sektore batzuentzat dekretua motz geratzen zen. Merkataritzan, publikoaren arretan hamabost langiletik gora edo 400 metro koadrotik gora zuten salto-



kiei soilik eragiten zien. Momentu hartan EAEko saltoki guztien %6,5 besterik ez ziren. Gainera, dekretuaren ezarpena EAEko hiru hiriburu eta biztanle elebidun portzentajea %33tik gorakoa zuten udaletara mugatzen zen. Eta etiketatzeaz ez zuen ezer ere esaten.

Jaurlaritza berriz aldatu zen orain urte eta erdi inguru. Badakizue oraingo gobernuak zer asmo duen dekretuarekiko?

Nik elkarrizketa egin nion Belen Greavesi, Kontsumobideko zuzendari izendatu eta gutxira [Jaurlaritzaren menpeko erakundea da Kontsumobide]. Dekretuaz galdetu nion besteak beste, ea isunen atala berreskuratuko ote zuten edo beste dekretu bat egingo zuten, eta ez zen batere busti erantzunean. Hizkuntza Politikarako Sailordetzak eta Kontsumobidek dekretu horrek ezarritakoa betetzen ari ote zen ikertuko zutela esan zidan, baina ez zuen ezer zehaztu. Azkenik, Grea-

vesek iazko ekainean dimititu zuen, haren ordez beste bat sartu zen, eta ordutik ez dakit askorik gaiaz. Irakurri dut zer-bait egin nahi dutela, baina nik dakidala ez da ezer egin. Horraino dekretuaren historia.

Lehen esan duzu merkataritzan euskaraz arreta ez jasotzeagatik keax ez zaizkizuela zuei iristen, euskalgintzako elkarteei baizik. Iaz emandako hitzaldi batean kexa kopuru urriaren balizko beste arrazoi bat aipatu zenuen: euskaldunok kemenak galdu omen dugu geure hizkuntz eskubideen defentsan.

Bai, hala uste dut. Herritar soil modura diot hori, ez EKAko bozeramaile modura. Euskaldunok orain dela pare bat hamarkada geneukan kemen hori ahuldu da, kalean sumatu egiten da, niri behintzat hala iruditzen zait. Bestetik, badirudi euskaldun askok, batez ere gaztelania nagusi den herrietan daudenean, ez dutela sentitzen gizarteko arlo guztietan euskaraz mintzatzeko eskubidea dutenik. Niri hala esan didate Ondarroako lagun batzuek, Bilbora etorrita.

Zer proposatzen duzue merkataritzan euskararen erabilpena sustatzeko?

Batetik, administrazioek ahalegina egitea euskararen alde. Jaurlaritzari eskatu genion dekretuaren isun atala berreskuratzeke, edo dekretu hobea egiteko, indarrean dagoena honezkero nahiko ahulduta dagoelako, "ukituta". Bestetik, merkatariei eta enpresei ere ahalegintxo eskatu behar zaie. Baina lan nagusia, neketsuena, eragingarriena, kontsumitzaile euskaldunoi dagokigu. Nire ustez, euskararen arazo nagusietako bat da erabilera ezagutza baino askoz baxuagoa dela. Hori da gakoa. ■



Babeslea: Hernaniko Udala



Hernaniarrok Udal aurrekontuetan parte hartzeko prozesua laster abian...

